**26.** Somos una comunidad que experimenta y ofrece la iniciativa de Dios-con-nosotros. Es Él, quien nos ha amado el primero (cfr. *1 Jn* 4, 10). Debemos estar deseosos de brindar misericordia, desde la propia conversión. La Iglesia está llamada a situarse ante cada hermano como Jesús que lavó los pies de sus discípulos, con obras y gestos, asumiendo la vida humana; debe tener, como dice el Papa Francisco, 'olor a oveja'. Todo ello requiere capacidad de acompañamiento y paciencia, sin perder la paz por la convivencia de la cizaña junto al trigo.

Nuestro reto es que la Palabra sea acogida y manifieste su potencia liberadora y renovadora. Y mientras tanto estamos llamados a celebrar y festejar cada pequeña 'victoria'. Hay que recordar siempre que «que no se agota la bondad del Señor, no se acaba su misericordia; se renuevan cada mañana, ¡qué grande es tu fidelidad!» (*Lm* 3, 22-23).

## 2. Centrarnos en el Evangelio de Jesucristo

**27.** Volver al Evangelio es y será siempre el criterio básico inspirador de la Iglesia, a la hora de revisar su rumbo. La Iglesia siempre encontró inspiración en la primera comunidad cristiana, en la que estaba fresca la memoria de Jesús. Primó el recuerdo de las palabras y de la praxis de Jesús. Hoy nos es

# II. ELIZAREN ARGIBIDEEN ARABERAKO BEREIZMENA

## 1. Jainkoaren errukiak eragin gaitzan utzi

**25.** *Misericordiae vultus* buldan hau esana dago: «Errukia: bizitzako bidean aurkitzen duen senideari egiazko begiekin begiratzen dion pertsonaren bihotzean dagoen oinarrizko legea da» (2. zk.). Beraz, esan daiteke, errukia munduari begiratzeko era bat dela, aldatzen gaituen eta mundua aldatzeko gogoz jartzen gaituen jarrera.

Errukizko begiradak atera egiten gaitu bide ezagunetatik eta gure egunerokotasuna hausten du erabat. Errukizko begiradak ez du mugarik, unibertsala da. Badaki aldian aldiko ezaugarriak bereizten eta eskatologikoa da: 'jada' hitzak konfiantza ematen dio, baina 'oraindik ezak' itxaropenean errotzen du. Aktiboa da: errealitatea geure gain hartzera eramaten gaitu. Geure tokitik mugitzen gaitu, toki berrian ezartzen, munduan dugun egitekoa zalantzan jartzen digu, baita gure ziurtasun eta interesak ere; gure ahultasunarekin adiskidetzen gaitu eta itxaropenaren testigu bihurtzen.

**26.** Jainkoa-gurekin izatearen esperientzia egin eta eskaintzen duen elkartea gara. Bera da lehenengo maite izan gaituena (ik. *1 Jn* 4, 10). Geure bihotzberritzetik besteei errukia eskaintzeko gogotsu egon behar dugu. Jesusek ikasleei oinak garbitu zizkien moduan, ekintzekin eta ezaugarriekin, giza bizitza geure gain hartuz "ardi usaina" izanez egotera deitua da Eliza. Horrek guztiak bidelagun izateko gaitasuna eta pazientzia eskatzen ditu, iraka eta garia elkarrekin daudela-eta bakea galdu gabe.

Hitza onartua izatea eta bere indar askatzailea eta berritzailea agertzea da gure erronka. Bitartean, 'garaipen' txiki bakoitza ospatzera eta jai egitera deituak gara. Egunero gogoratu behar dugu «Jaunaren onginahia ez dela bukatu, haren errukia ez dela agortu; goizero berritzen da. Bai handia, Jauna zure leialtasuna!» (*Nk* 3, 22-23).

## 2. Jesu Kristoren Ebanjelioan zentratu

**27.** Ebanjeliora itzultzea da eta izango da beti oinarrizko irizpidea Elizak bere norabidea aztertzerakoan. Lehenengo kristau-elkartean aurkitu izan du Elizak beti eredua, bizirik baitzegoen elkarte hartan Jesusen oroimena. Jesusen hitzen eta egintzen oroimena nagusitu zen. Gaur ezinbestekoa zaigu oroimen

imprescindible refrescar esa memoria. Obviamente hay que saber también rescatar la Tradición de la Iglesia; es decir, lo que la sabiduría del pueblo creyente y sus pastores fueron descubriendo poco a poco, y no sin dificultad, a lo largo de la historia.

Jesús comenzó su misión invitando a convertirse y creer en la Buena Noticia (cfr. *Mc* 1, 14-15). La llamada a la santidad de Jesús concuerda con el deseo de felicidad inscrito en el corazón de los hombres y mujeres. La predicación del Evangelio se realiza al mismo tiempo que se alivia el sufrimiento y el dolor del mundo. Jesús denunció y rechazó el pecado como enemigo de la santidad-felicidad del ser humano. Es importante señalar que la conversión nunca fue para él un requisito previo para entrar en la casa de nadie. Cambiar de vida resultó una consecuencia de sentirse amado, aceptado y liberado por Dios. No a la inversa.

**28.** Jesús llamó a otros a compartir su vida y su misión. Esto es muy evidente en los evangelios (cfr. *Mc* 1, 16-20 y *Jn* 1, 35-51). Jesús no inició su ministerio en soledad, y cuando envía a sus discípulos lo hace con una propuesta de vida (cfr. *2 Tim* 1, 1), invitando a vivir de una manera nueva, pues su gran pasión es hacer manifiesta la presencia del Reino de Dios y luchar contra todo aquello que impide su plena manifestación. A ello consagró su vida.

**29.** El corazón de Jesús es bueno y pacífico: otorgó y predicó el amor y el perdón a los enemigos, pasó haciendo el bien y optó por la no-violencia, aunque se convirtiera en signo de contradicción. Entre las cosas que más escandalizaban de Jesús podemos subrayar: el que perdonara los pecados; el que se presentara como el Hijo de Dios; su profunda relectura de la Ley y del Templo; su preferencia por los pobres y los marginados, los impuros y pecadores; su insistencia en que los últimos serán los primeros; el volver a poner el sábado al servicio de la persona y no viceversa; el que compartiera la vida y la mesa con gente de mala fama; el que aceptara a mujeres como discípulas y misioneras…

## 3. Apostar por la familia

**30.** Aunque Dios tiene infinitos caminos para conducirnos a Él, en la mayoría de nosotros la familia ha sido el humus natural en el que Dios ha sembrado el don sobrenatural de la fe… Para que el mensaje de Jesús llegue a ser verdaderamente significativo para las nuevas generaciones, es importante que les sea presentado en el seno familiar, que es el entorno en el que viven la experien-

hori eguneratzea. Nola ez, jakin egin behar da Elizaren Tradizioa berreskuratzen ere; herri fededunaren eta haien artzainen jakinduriak, zailtasunak zailtasun, historian barrena pixkanaka aurkitu dutena, alegia.

Bihotz-berritzeko eta Berri Ona sinesteko deia eginez hasi zuen Jesusek bere misioa (ik. *Mk* 1, 14-15). Jesusek santu izateko egiten digun deia bat dator giza bihotzean idatzia dagoen zorion-gogoarekin. Ebanjelioaren predikua munduko sufrimendu eta minak arintzearekin batera gertatzen da. Jesusek bekatua salatu eta baztertu izan zuen beti, gizakiari galarazi egiten diolako zoriontsu izatea, santu izatea. Azpimarratu behar da, bihotz-berritzea ez zela inoren etxean sartzeko baldintza izan Jesusentzat. Jainkoaren maitasuna, onarpena eta askatasuna sentitu izanaren ondorio gertatu zen biziera aldatzea. Ez alderantziz.

**28.** Jesusek beste batzuei dei egin zien bere biziera eta misioa partekatzeko. Hau garbi aurkitzen da ebanjelioetan (ik. *Mk* 1, 16-20 eta *Jn* 1, 35-51). Jesusek ez zuen bere ministerioa bakardadean hasi. Eta ikasleak bidaltzean ere biziera-proposamen batekin bidaltzen ditu (ik. *2 Tim* 1, 1), beste era batera bizitzera gonbidatuz; izan ere, Jesusen gogorik handiena Jainkoaren Erregetzaren presentzia agerian jartzea zen eta Erreinuaren erabateko agerpena galarazten duen guztiaren aurka borroka egitea. Horretara eskaini zuen bizitza.

**29.** Jesusen bihotza ona eta bakezalea da: etsaiekiko maitasuna eta barkamena hots egin eta eman zien, on eginez igaro zen eta indarkeriarik ezaren aldeko hautua egin zuen, nahiz askorentzat eskandalu bide izan. Hauek ziren Jesusen jarreretatik eskandalu gehien sortzen zutenak: bekatuak barkatzea; Legearen eta Tenpluaren berrirakurketa sakona egitea; behartsu eta baztertuekiko, lohitsu eta bekatariekiko bere hobespena; azkenekoak lehenengo izango zirela behin eta berriz esatea; larunbata pertsonaren zerbitzura jartzea, eta ez alderantziz; bizitza eta mahaia izen txarreko jendearekin partekatzea; emakumeak ikasle eta misiolari bezala onartzea…

## 3. Familiaren aldeko apustua

**30.** Jainkoak mila bide baditu ere gu berarengana eramateko, gutako gehienontzat familia izan da Jainkoak fedearen naturaz gaindiko dohaina erein duen lurra… Jesusen mezua belaunaldi berrientzat benetan esanguratsua izateko, garrantzizkoa da fede hori familiaren baitan eskaintzea, hori baita doan maitatuak izatearen esperientzia bizi duten ingurunea. Horrela, kristau-

cia de ser amados gratuitamente. De esta forma, en la iniciación cristiana se conjuga la novedad de Jesús que sale a nuestro encuentro de forma personal, con el tesoro recibido en la tradición de la familia cristiana. Sin embargo, la realidad es que nuestras familias están heridas, por lo que es necesario acompañarlas de cerca en esta misión.

Entre tantos documentos orientadores, acogemos las «Orientaciones pastorales para la coordinación de la familia, la parroquia y la escuela en la transmisión de la fe», publicada por la Conferencia Episcopal Española; en el que se subraya la importancia de la conjunción de la triada familia-escuela-parroquia. La escuela y la parroquia se integran al servicio de la vocación de la familia de dar vida al mundo.

**31.** Hacemos la puesta por la evangelización de la familia, así como por el servicio a la tarea educativa de los padres; para que puedan llevar adelante la tarea que Dios les encomendó de ser 'iglesia doméstica'. Los padres son los principales y primeros educadores, y necesitan percibir a la Iglesia como la 'gran familia', que los anima a permanecer fieles en su compromiso de amor, al tiempo que asiste en los momentos de dificultad. Cada vez somos más conscientes de que la llamada «emergencia educativa» tiene su origen en la «emergencia afectiva» … Las crisis matrimoniales son la causa de infinidad de sufrimientos en nuestros días. La encíclica de San Juan Pablo II *Familiaris consortio* y la Exhortación del Papa Francisco *Amoris Laetitia* nos animan a ser un 'hospital de campaña', al servicio de la vocación matrimonial. Nuestro Centro de Orientación Familiar (COF) se presenta como uno de los instrumentos más necesarios en este reto.

## 4. Apostar por una Iglesia profundamente misionera

**32.** La Iglesia existe para evangelizar. La finalidad de la conversión pastoral que queremos impulsar no es otra que hacer que la Iglesia sea más efectiva y creativa para vivir y anunciar a Jesucristo en nuestro pueblo y en el mundo de hoy. Todo está de más si perdemos el entusiasmo misionero. Pero no hay que negar que necesitamos una profunda revisión de los fundamentos de la misión. Lo principal reside en compartir y dar a conocer a Jesús como tesoro vital, y junto con ello hacer crecer el Reino de Dios (Reino de paz y justicia; Reino de vida y amor).

El viejo modelo de estar a la espera a que venga la gente a pedir sacramentos no funciona, está caducado. Los datos son elocuentes también entre

sarbidekoan bat egiten dute Jesus gugana era pentsonalean etortzearen gertaerak eta kristau-familiaren tradizioan jasotako altxorrak. Kontua da, ordea, gure familiak zaurituak daudela, eta hurbileko bide-laguntza eskaini behar zaiela misio honetan.

Gauza honetan argigarri diren hainbat idazkiren artean, Espainiako Gotzainen Batzarrak argitaratutako "Orientaciones pastorales para la coordinación de la familia, la parroquia y la escuela en la transmisión de la fe" aholku-hitza onartu dugu; idazki horretan, familia-eskola-parrokia hirukotea bateratzeak duen garrantzia azpimarratzen da. Eskola eta parrokia munduari bizia emateko familiak duen bokazioaren zebitzura jartzen dira.

**31.** Familia ebanjelizatzearen aldeko, eta gurasoek duten heziera-lanaren zerbitzuaren aldeko apustua egiten dugu, Jainkoak ezarri dien 'etxeko eliza' izateko eginkizuna bete ahal dezaten. Gurasoak dira lehenengo eta funtsezko hezitzaileak, eta 'familia handia' bezala sumatu behar dute Eliza, beren maitasun-konpromisoari leial eusten lagunduko diena, eta, aldi berean, une zailetan laguntza eskainiko diena. Gero eta garbiago ikusten dugu «hezierako larrialdia» delakoak «maitasunaren larrialdian» duela jatorria… Senar-emazteen arteko krisiak dira gaur egungo sufrimen asko eta askoren iturburua. San Joan Paulo II.aren *Familiaris consortio* entziklikak eta Frantzisko Aita Santuaren *Amoris laetitia* Aholku-hitzak 'borrokaldiko ospitale' izatera dei egiten digute ezkontzako bokazioaren zerbitzura. Erronka honi erantzuteko, gure Familientzako Aholku Etxea (FAE) dugu baliabiderik beharrenetakoa.

## 4. Erabat misiolaria den Eliza baten alde egin

**32.** Eliza, izan, ebanjelizatzeko da. Bultzatu beharrekoa den bihotz-berritze pastoralak ez du hau beste xederik: Eliza eraginkorrago bihurtzea, gure herrian eta egungo munduan Jesu Kristo bizitzeko eta iragartzeko sormen handiagoa duena. Misio-karra galtzen badugu, beste guztia alferrik dugu. Baina ezin ukatu dugu, beharrezko dugula misioaren oinarri-azterketa sakona ere. Jesus altxor bizi bezala partekatu eta eskaintzea da oinarrizkoena; eta horrekin batera, Jainkoaren Erreinua haz dadin lan egitea (bakearen eta zuzentasunaren Erreinua; biziaren eta maitasunaren Erreinua).

Jendea sakramentuak eskatzera noiz etorriko zain egotearen eredu zaharrak ez du balio, gainditua dago. Datuak esanguratsuak dira gure artean ere. Egungo egoeran kanpora irtengo den Elizak bakarrik du lekua. Mundu plural honen erdira, proselitismorik gabe Ebanjelioa eskaintzera ateratzeko ordua da.

nosotros. En el contexto actual solo cabe una Iglesia en salida. Es hora de salir a ofrecer el Evangelio sin proselitismos en medio de un mundo plural. Las posturas que demonizan al que no piensa igual no tienen cabida; más bien se trata de atraer, ser creíbles, dar testimonio, dialogar, salir al encuentro, proponer. En este ámbito habría que destacar también el diálogo interreligioso y el propio ecumenismo cristiano, así como la convivencia con diferentes pensamientos filosóficos y culturas de nuestro entorno.

**33.** Ahora bien, la Iglesia sigue teniendo fortalezas importantes: reúne semanalmente a un número considerable de creyentes; aporta luz y sentido a la vida de muchos; está muy cerca de los sectores más desfavorecidos de la sociedad; cuenta con grupos significativos de laicos, religiosos y ordenados que son misioneros, catequistas, animadores de la liturgia y de la caridad, que se ocupan de los enfermos y los migrantes; así como cristianos comprometidos, a nivel particular y público, en sus ambientes.

Eso sí, necesitamos acertar con el lenguaje de hoy; hacernos entender mejor. La Iglesia necesita expresarse con un lenguaje más vivo y adecuado al momento, usando los medios vigentes, aunque sin minimizar o rebajar el mensaje de salvación.

**34.** «Fiel al modelo del Maestro, es vital que hoy la Iglesia salga a anunciar y proponer el Evangelio, a todos, en todos los lugares, en todas las ocasiones, sin demoras y sin miedo» (*EG* 23). Tiene que ser una Iglesia encarnada en los límites humanos y de puertas abiertas al eterno Misterio de amor que es Dios. Una Iglesia alegre y esperanzada. Una Iglesia que afronta la realidad sin miedo: «La Iglesia en salida es la comunidad de discípulos misioneros que 'primerean', que se involucran, que acompañan, que fructifican, y festejan» (*EG* 24). Este dinamismo nos lleva a mirar todo desde «las periferias existenciales», y pensar y mirar la realidad desde ellas con ilusión renovada.

## 5. Comprometernos con esta nueva etapa evangelizadora

**35.** En este marco, la evangelización que se propone tiene un proceso íntimo que hay que saber acoger: Primero, renovar el encuentro con Cristo, con el Dios con nosotros, la auto-comunicación de Dios a la criatura, que dicen los teólogos; es decir, la Revelación. Segundo, predisponerse a esta experiencia, ayudando a ahondar en la sed del corazón del ser humano, por encima de teorías y costumbres. Se trata de ahondar e impulsar la esperanza. Tercero, la transformación de la vida de los propios creyentes, desde la experiencia del

Desberdin pentsatzen duena gaiztotzat hartzen duten jarrerak ez dute tokirik; erakartzea da kontua, sinesgarri izatea, proposatzea. Honetan, Erlijioen arteko elkarrizketa eta kristauen arteko ekumenismoa azpimarratu behar dira, baita gure inguruko pentsamendu filosofiko eta kultura ezberdinen arteko elkarbizitza ere.

**33.** Baina indargune handiak ditu oraindik Elizak: fededun-kopuru aipagarria biltzen du astero; argia eta zentzua eskaintzen dio askoren bizitzari; gizarteko sektore babesgabeengandik oso gertu dago, baditu laiko, erlijioso-erlijiosa eta ordenatuen talde esanguratsuak… baita misiolariak, katekistak, liturgiaren eta karitatearen, gaixoen eta migratzaileen animatzaileak ere; badira era pribatuan nahiz publikoan, bizi diren inguruan jarrera arduratsua duten kristauak ere.

Baina, egungo hizkuntzarekin asmatu behar du Elizak, ulergarri gertatu behar du. Hizkera biziagoa eta bizi duen unerako egokiagoa behar du Elizak, egungo baliabideak erabiliz, baina salbamen-mezua gutxitu edota indargabetu gabe.

**34.** «Maisuaren ereduarekin leial izanez, beharrezkoa da Eliza –guztiei, toki guztietan, aldi oro, luze gabe, nazkarik eta beldurrik gabe– Ebanjelioa hots egitera ateratzea» (EG 23). Etengabe eraberritzen eta bihotz-berritzen den Eliza izan behar du. Giza mugetan sartua dagoen Eliza, betiereko maitasun Misterioari (Jainkoari) ateak zabaltzen dizkiona. Eliza alaia eta itxaropentsua. Errealitateari beldurrik gabe aurre egiten diona. «Kanpora irtengo den Eliza, aurreratzen eta murgiltzen diren, eta laguntzen, fruitu ematen eta ospatzen duten ikasle misiolarien elkartea da» (EG 24). Dinamismo honek gauza guztiak «periferia existentzialetatik» begiratzera garamatza, eta, hortik abiatuz, errealitatea ilusio eraberrituarekin pentsatu eta begiratzera.

## 5. Aro ebanjelizatzaile berri honekin konprometitu

**35.** Marko honetan, hemen proposatzen den ebanjelizatzeak onartu beharrekoa den barne prozesua du: lehenengo, Kristorekin, hau da, gurekin Jainkoa denarekin aurkitzea eraberritzea; teologoek dioten bezala, Jainkoak gizakiari egiten dion bere buruaren komunikazioa. Bigarren, teoria eta ohituren gainetik, esperientzia honetarako aldez aurretiko norberaren prestakuntza, gizakiak bere bihotzean sumatzen duen egarrian sakontzen lagunduz. Itxaropena sustatu eta sakontzea, alegia. Hirugarren, fededunen biziera eraldatzea, topo egitearen, komunikazioaren eta elkarrekikotasunaren esperientziatik, karisma eta zerbitzu desberdinak errespetatuz. Laugarren, Elizaren jarduera

encuentro, la comunicación y la reciprocidad, en base a la comunión en la diversidad de carismas y servicios y el respeto mutuo. Y, cuarto, dinamizar la marcha de la Iglesia haciéndola tomar conciencia de ser enviada, en salida de sí misma, descentrada de sus seguridades y peregrina por el mundo.

Es evidente que la Iglesia siempre ha sido evangelizadora; lo es por esencia, no podía ser de otra manera. Es un mandato evangélico (cfr. *Jn* 20, 21 y *Mt* 28, 19). Es, además, un mandato magisterialmente muy asentado. El segundo Concilio Vaticano, dice que «la Iglesia es por su misma esencia misionera» (*AG* 2). Se trata de una vocación que está inserta en el mismo sacramento del bautismo. Se ha reflexionado mucho y bien sobre ello.

**36.** Nuestros obispos diocesanos actuales y pasados, han estudiado con profusión y profundidad el reto de la evangelización de nuestro pueblo, incidiendo especialmente, en cómo «ir pasando de una pastoral de mantenimiento, a otra más misionera, orientada a promover el despertar religioso y a reconstruir la experiencia de fe» (*Una Iglesia al servicio del evangelio*), además de insistir en la misión 'ad gentes' como una dimensión consustancial a toda evangelización, recordando especialmente, nuestro servicio histórico desde Misiones Diocesanas Vascas y otras instancias. Por su parte, los últimos Papas han impulsado muchas experiencias de gran calado e interés: El *Anuncio del evangelio* de San Pablo VI, la *Nueva Evangelización* de San Juan Pablo II, el *Atrio de los gentiles* de Benedicto XVI, y la *Iglesia en salida* del Papa Francisco; que evidentemente, nunca debemos de arrinconar, sino, más bien, acoger y actualizar.

indarberritzea, bidalia denaren kontzientzia izan dezan, bere baitatik atera dadin, ziurtasunak alde batera utz ditzan eta munduaren erdian erromes izan dadin.

Garbi dago Eliza beti izan dela ebanjelizatzailea, berezkoa du hori, ezin zitekeen bestela izan. Ebanjelioko agindua da (ik. *Jn* 20, 21 eta *Mt* 28, 19). Eliz irakaspenean oso baietsia dagoen agindua da gainera. Vatikanoko bigarren Kontzilioak dio, «Eliza bere izaeraz [dela] misiolaria» (*AG* 2). Bataioko sakramentuan txertatua dagoen bokazioa da hau. Hausnarketa asko eta onak egin izan dira gai honen inguruan.

**36.** Elizbarrutietako gure gotzainek –oraingoek nahiz lehengoek–,luze eta zabal aztertu dute, sakontasunez aztertu ere, gure herria ebanjelizatzearen erronka; bereziki azpimarratu dute beharrezkoa dela «batez ere fedeari eustera begira dagoen pastoraltzatik gehienbat misiolaria izango den pastoraltzara igarotzea, erlijio-esnaera eta fede-esperientzia berreraikitzea helburu duen pastoraltzara igarotzea» (*Eliza Ebanjelioaren zerbitzura*); 'ad gentes' misioaren garrantzia azpimarratu izan dute, ebanjelizatzeak bere-berea duen alderdia denez eta Euskal Elizbarrutietako Misioetatik eta beste esparru batzuetatik egindako zerbitzu historikoa bereziki gogoratuz. Bestalde, azken Aita Santuek interes eta sakontasun handiko esperientzia asko sustatu dute: *Ebanjelioaren iragarpena*, San Paulo VI.ak, *Ebanjelizatze berria*, San Joan Paulo II.ak, *Gentilen ataria*, Benedikto XVI.ak eta *Kanpora irtengo den Eliza* Frantzisko Aita Santuak; eta, jakina, ez ditugu horiek inoiz baztertu behar, geure egin eta gaurkotu baizik.

# III. CRITERIOS QUE PUEDEN AYUDARNOS EN LOS PLANES PASTORALES

## 1. Partir de la realidad de las personas y de la cultura del encuentro

**37.** Se trata de partir de lo que los interlocutores, las personas a quienes nos dirigimos y los destinatarios de nuestra pastoral, están viviendo, sintiendo, necesitando y pueden comprender. El 'otro', el interlocutor, hemos de tratarlo como sujeto agente y no como un mero destinatario pasivo. Son decisivos los momentos del encuentro y la acogida, la actitud empática y el lenguaje inteligible.

También es fundamental que nuestro enfoque sea positivo, sin subrayar sólo lo negativo; partir de una actitud afirmativa que destaque lo bello, lo bueno que hay en las personas y en el mundo. No se puede evangelizar sin empatía y alegría, sin inculturación y cercanía (*EG* 127-129). Al mismo tiempo, es igualmente necesario entender que no se puede evangelizar rebajando el mensaje que transmitimos.

**38.** En lo que se refiere a las relaciones con la sociedad, hace tiempo que la Iglesia viene proponiendo un estilo de presencia que el Concilio lo sintetizó en una "sintonía con el mundo sin ser del mundo" (cfr. *GS* 2). Hoy lo concretamos en una cultura del encuentro; en una visión esperanzada del futuro; en una opción por la misericordia; en un saber distinguir entre lo permanente y lo cambiante; en un entender la propia realidad de la Iglesia en diálogo con el mundo real, donde la Iglesia aporta de sí misma la defensa del sentido y la dignidad de cada persona (cfr. *GS* 41-43).

La Iglesia, en su interacción con el mundo, pretende una sola cosa: que llegue el Reino de Dios y se instaure la salvación de todo el género humano (cfr. *GS* 38). La Iglesia quiere asemejarse a Cristo y ser testigo de la verdad salvadora de la humanidad, servidora del ser humano (cfr. *GS* 3). Por eso la orientación que ha de regir la presencia de la Iglesia en el mundo es la de la inculturación.

Es importante hacer significativa la fe cristiana en la realidad histórica concreta, pero desde el respeto y la humildad. La Iglesia es depositaria de la novedad del Evangelio, por lo que sufre una cierta contraculturalidad en medio de la mundanidad. Es universal (es católica), al mismo tiempo que está llamada a concretarse y encarnarse en medio de toda situación histórica,

# III. EGITASMO PASTORALETARAKO IRIZPIDE LAGUNGARRIAK

## 1. Pertsonak eta elkar aurkitzearen kultura abiapuntu izatea

**37.** Gure solaskideek, gure pastoraltzaren hartzaileek, bizi dutena, sentitzen dutena, behar dutena, uler dezaketena abiapuntutzat hartzea da kontua. 'Bestea', solaskidea, subjektu bezala errespetatu behar da, ez hartzaile pasibo huts bezala. Erabakigarriak dira elkar aurkitzea eta harrera, jarrera enpatikoa eta hizkera ulergarria.

Gure begirada baikorra izatea ere garrantzi handikoa da, ezkorra dena bakarrik azpimarratu gabe; pertsonengan dagoen ederra eta ona aipatuko duen jarrera baikorretik abiatu behar dugu. Ezin da enpatiarik gabe eta alaitasunik gabe, inkulturazio eta gertutasunik gabe ebanjelizatu (ik. *EG* 127-129). Aldi berean, maila bereko garrantzia du, eskualdatzen dugun mezua merkatuz ezin dela ebanjelizatu ulertzeak ere.

**38.** Gizartearekiko harremanei dagokienez, Elizak aspaldi proposatu du kristauen presentziaren estilo berria, Kontzilioak 'mundutar izan gabe munduarekin sintonía izatea' bezala laburbildu zuena (ik. *GS* 2). Elkar aurkitzearen kultura deitzen diogu gaur; eta etorkizunari itxaropenez begiratzea; errukiaren aldeko hautua egitea; iraunkorra eta aldakorra bereizten jakitea; Eliza bera mundu errealarekin izan beharreko elkarrizketan ulertzea; hor eskaintzen du Elizak, gizaki bakoitzaren zentzua eta duintasuna babestea (ik. *GS* 41-43).

Elizak, munduarekiko harremanean gauza bakarra du helburu: Jainkoaren Erreinua etorraraztea eta gizadi osoaren salbamena gauzatzea (ik. *GS* 38). Elizak Kristoren antzeko izan nahi du, gizadiaren salbamen-egiaren testigu eta gizadiaren zerbitzari (ik. *GS* 3). Horregatik, inkulturazioa da Elizak munduan izan behar duen presentziaren norabidea.

Garrantzitsua da kristau-fedea errealitate historiko zehatz batean esanguratsu egitea, begirune eta apaltasunez ordea. Ebanjelioaren berritasuna altxor moduan gordetzen du Elizak, ingurune mundutarraren erdian nolabaiteko kontrakulturaren ondorioak nozituz. Unibertsala da Eliza (katolikoa), baina, aldi berean, egoera historiko guztietan zehaztu eta txertatzera deitua da, Espiritu Santuak munduan ereiten duenari arreta jarriz, itxaropenetik haren presentziaren zantzuak aurkitzeko.

atendiendo a todo lo que el Espíritu Santo siembra en el mundo, para descubrir los signos de su presencia, desde la esperanza.

## 2. Trabajar por el desarrollo integral de los pobres desde el amor fraterno

**39.** El criterio clave de autenticidad evangélica siempre ha sido el tener presente a los más desfavorecidos (cfr. *EG* 195). El Evangelio es una invitación al amor fraterno, al servicio humilde y generoso, a la justicia, a la misericordia con el pobre… «No nos preocupemos sólo por no caer en errores doctrinales, sino también en ser fieles a este camino luminoso de vida y de sabiduría» (*EG* 194), sabedores de que la mayor pobreza es no conocer a Cristo salvador (cfr. *EG* 200).

**40.** Por otra parte, «la necesidad de resolver las causas estructurales de la pobreza no puede esperar» (*EG* 202). No podemos quedarnos mirando las consecuencias sin preguntarnos por las causas, «por eso que los planes asistenciales, que atienden ciertas urgencias, solo deberían pensarse como respuestas pasajeras» (*ibid.*). ¿Por dónde avanzar? Por la «defensa de la dignidad de cada persona y el bien común» (*EG* 203). Hay que hablar de ética, de solidaridad, de distribución de los bienes, de preservar el trabajo, de dignidad de los débiles, de un Dios que exige comprometerse (Doctrina Social de la Iglesia). Y para ello hay que alejarse de la cómoda indiferencia.

Hace falta «una sana economía mundial, (…) un modo más eficiente de interacción que, dejando a salvo la soberanía de las naciones, asegure el bienestar económico de todos los países y no solo de unos pocos» (*EG* 206).

Es por esto por lo que, además, hay que trabajar por una forma de política que busque el bien común (cfr. *EG* 205). Hay que reivindicar la caridad política (justicia y paz) como servicio al bien común. «La caridad no es sólo el principio de las micro-relaciones, como las amistades, la familia, el pequeño grupo; sino también de las macro-relaciones sociales, económicas y políticas» (*Caritas in veritate*, 2).

Hacen falta políticos creyentes, y gentes de Iglesia como afirmó nuestro Papa emérito Benedicto XVI: «la misión de los fieles es, configurar rectamente la vida social, respetando su legítima autonomía y cooperando con los otros ciudadanos…» (*Deus caritas est,* 29).

## 2. Elkarmaitasunean oinarriturik behartsuen garapen osoaren alde lan egitea

**39.** Ebanjelioarekiko zinezkotasunaren egiazko irizpidea behartsuez ez ahaztea izan da beti (ik. *EG* 195). Ebanjelioa gonbidapena da: elkarmaitasunera, zerbitzu apal eta eskuzabalera, justiziara, behartsuarekiko erruki izatera... «Ez gaitezen ardura doktrinazko hutsegiteak ez egiteaz bakarrik, bizitzarako jakinduriazko bide argi honetan leial irauteaz baizik» (EG 194), jakinik, pobreziarik handiena Kristo salbatzailea ez ezagutzea dela (ik. *EG* 200).

**40.** Bestalde, «pobreziaren kausa estrukturalak konpontzeko beharra ezin da gehiago luzatu» (*EG* 202). Ezin gara, arrazoiei erreparatu gabe ondorioei begira geratu, horregatik «zenbait larrialdiri erantzutea besterik egiten ez duten laguntza-egitasmoak, bolada baterako bakarrik pentsatu behar lirateke» (*ibid.*). Zein bide hartu? «Gizaki bakoitzaren duintasuna eta guztion ongia» hartu behar dugu bide (EG 203). Etikaz, solidaritateaz, ondasunen banaketaz, lanpostuak zaintzeaz, ahulen duintasunaz, konpromisioa eskatzen duen Jainkoaz mintzatu behar dugu (Elizaren Irakaspen Soziala). Eta horretarako aldendu egin behar dugu axolagabekeria erosotik.

Beharrezko da «munduko ekonomia egokia, (…) nazioen burujabetasuna salbu, herrialde guztien –eta ez gutxi batzuena bakarrik– ongizate ekonomikoa ziurtatuko duen elkarlanerako modu eraginkorragoa asmatzea» (EG 206).

Lan egin behar da, gainera, guztien ona lortu nahi duen politika egiteko moduaren alde (ik. *EG* 205). Karitate politikoa (justizia eta bakea) galdatu behar da guztien ongiari egindako zerbitzu moduan. «Karitatea ez da soilik mikro-erlazioen oinarria, esaterako, adiskide, familia eta talde txikien artekoena, baita makro-erlazioena ere, esaterako harreman sozial, ekonomiko eta politikoena» (*Caritas in veritate*, 2).

Politikari fededunak eta jende elizkoia behar dugu, Benedikto XVI.a gure Aita Santu emerituak esan bezala: «fededunen egitekoa da, gizarteko bizitza zuzenki moldatzea, bidezko autonomia errespetatuz eta gainerako herritarrekin lankidetzan arituz…» (*Deus caritas est,* 29).

## 3. Gure izaera espirituala gehiago eta hobeto zaintzea

**41.** «Elizak inoiz baino gehiago behar du otoitzaren arnasa hartzea» (*EG* 262). Bultzada eman behar diogu «Jainkoarekiko harreman pertsonal eta konprometituari eta, aldi berean, besteekin lotzen gaituenari» (*EG* 91).

## 3. Cuidar más y mejor nuestra espiritualidad

**41.** «La Iglesia necesita imperiosamente el pulmón de la oración encarnada» (*EG* 262). Hay que reivindicar la experiencia espiritual que trata de impulsar «una relación personal y comprometida con Dios, que, al mismo tiempo, nos comprometa con los otros» (*EG* 91).

La espiritualidad evangélica integra la vida interior y el compromiso activo. Por eso que, debemos profundizar continuamente en aquella espiritualidad que la tradición nos ha legado; sin caer ni en el activismo tan propio de nuestra cultura occidental, ni en escapismos; porque «existe el riesgo de que algunos momentos de oración se convierta en excusa para no entregar la vida en la misión» (*EG* 262). «Hay que rechazar la tentación de una espiritualidad escondida e individualista, que poco tiene que ver con las exigencias de la caridad y con la lógica de la Encarnación» (*ibid*.).

**42.** Por otra parte, el dualismo que, a menudo, contrapone oración y acción, necesita ser superado desde la profundidad de una verdadera actitud teologal, que nos pide salir de nosotros mismos y vivir desde la mirada del Dios que nos salva. Porque en la raíz de la evangelización, lo decisivo es «una vida que se ha transfigurado en la presencia de Dios» (*EG* 259). Hablamos de una espiritualidad sólida, que hunde sus raíces en la entraña amorosa de un Dios trinitario; una espiritualidad histórica, encarnada en las personas reales; una espiritualidad transformadora y llena de ternura, que nos hace vivir el compromiso como vocación; una espiritualidad de comunión, para acoger al otro como regalo e impulsar el diálogo; una espiritualidad de discernimiento para actuar a la luz del evangelio; una espiritualidad eucarística, alimentada y celebrada comunitariamente; una espiritualidad de la pobreza y la austeridad personal y grupal, que nos haga ser sencillos y cercanos, honrados y honestos.

**43.** La Iglesia, en cada eucaristía, nos regala esta profunda experiencia espiritual, ofreciéndonos la Palabra de Dios como faro para nuestra vida diaria y el Cuerpo y la Sangre de Cristo como alimento de eternidad. Es Dios mismo el que se regala en nuestra historia, así como en los sacramentos. Ninguna religión se atreve a llegar tan lejos: alimentarse con el Cuerpo y la Sangre del Señor. Hemos de reconocer que es necesaria una preparación de la celebración eucarística más esmerada, de forma que una mejor participación nos ayude a recibir mayores frutos.

Izaera espiritual ebanjelikoak barne-bizitza eta konpromiso eraginkorra bateratzen ditu. Horregatik, etengabe sakondu behar dugu tradizioak eman digun izaera espirituala, mendebaldeko kulturak bere-berea duen aktibismoan murgildu gabe, ezta iheskerian ere; zeren eta «arriskua dago, zenbait otoitzaldi aitzakia bihurtzea misioari bizia ez eskaintzeko» (*EG* 262). «Muzin egin behar zaio ezkutukoa den eta norbanakoari begira bakarrik dagoen espiritualtasunari, zerikusi gutxi baitu horrek karitatearen eskakizunekin eta Gizakundearen logikarekin» (i*bid*.).

**42.** Gainditu egin behar da, sarritan otoitza eta ekintza kontrajartzen dituen dualismoa; beharrezko da horretarako egiazko jarrera teologala, geure baitatik atera eta salbatzen gaituen Jainkoaren begiradaz bizitzea eskatzen diguna. Ebanjelizatzearen erroan «Jainkoaren presentzian antzaldatutako biziera da erabakigarria» (EG 259). Hirutasun den Jainkoaren errai maitetsuetan errotutako espiritualtasun sendoa eskatzen du horrek; benetako pertsonetan hezurmamitutako espiritualtasun historikoa; benetako pertsonetan hezurmamitua; konpromisoa bokazio moduan biziaraziko digun espiritualtasun aldatzailea eta samurtasunez betea; hurkoa dohain bezala onartu eta elkarrizketa bultzaraziko digun komunioaren espiritualtasuna; Ebanjelioaren argitan jarduteko, bereizmenaren espiritualtasuna; elkarrekin elikatutako eta ospatutako Eukaristiaren espiritualtasuna; soil eta gertuko, zintzo eta prestu egingo gaituen pobrezia eta neurritasun pertsonal naiz taldekoaren espiritualtasuna.

**43.** Eukaristia bakoitzean espiritualtasun bizipen hau guri eskaintzen saiatzen da Eliza, gure bizitzarako argi gertatzen den Jainkoaren Hitza eta betiereko janari gertatzen den Kristoren Gorputza eta Odola eskainiz. Jainkoa bera da gure historian eta sakramentuetan ematen zaiguna. Ez da erlijiorik horretaraino ausartzen denik: Jainkoaren gorputzaz eta odolaz elikatu. Aitortu beharrean gaude, eukaristi ospakizuna era saiatuagoan prestatu behar dugula, partehartze hobearen fruitu gehiago jasotzen lagun diezagun.

## 4. Teoria baino gehiago lekukotasun-ekintzak bultzatzea

**44.** Zer egin behar dugu? Jesu Kristorekin topo egin izanaren esperientzia pertsonala besteekin partekatzea da garrantzizkoa, Benedikto XVI.a Aita Santuak esan bezala: «Ez da kristau izaten hasten erabaki etiko batek edota ideia nagusi batek hartara eraginik, bizitzari aukera berria ematen dion gertakariarekin aurkitzean… baizik» (*Deus caritas est*, 1). Horregatik beharrezkoa da Jesu Kristorekiko harreman pertsonalaren testigantza. Bestalde, ebanjelizatze

## 4. Impulsar actuaciones testimoniales más que teorías

**44.** ¿Qué tenemos que hacer? Lo fundamental es compartir nuestra vivencia personal del encuentro con Jesucristo con lo demás, tal y como dice el Papa Benedicto XVI: «No se comienza a ser cristiano por una decisión ética o una gran idea, sino por el encuentro con un acontecimiento» (*Deus caritas est*, 1). Es por ello necesario el testimonio de la relación personal con Jesucristo. Por otra parte, en la base de toda evangelización está la Palabra de Dios y es indispensable que esté «cada vez más en el corazón de toda actividad eclesial» (*Verbum Domini*, 1).

**45.** Junto a la teología, tal y como se ha insistido, en el Sínodo de los jóvenes (2018), es especialmente necesario 'hacer gustar el espíritu de la liturgia'; algo que, parece ser hoy uno de los retos más fundamentales de Iglesia. Lo mismo se dice en nuestra encuesta diocesana, en cuanto a ofrecer una formación litúrgica adecuada; ya que son muchos los que no comprenden el vocabulario, ni tampoco la simbología, ni participan de la tradición orante comunitaria. No cabe duda de que los elementos variables de la liturgia deben adaptarse a la comunidad celebrante; teniendo en cuenta la capacidad de comprensión, sus problemas personales, sus inquietudes y su propia experiencia de Cristo.

Y junto a la vida sacramental y litúrgica de la Iglesia, es necesaria una piedad popular bien enfocada, encarnada en una cultura y un lugar, que refleja la sed de Dios de las gentes, más por la vía simbólica que por la razón lógica (cfr. *EG* 123). También es muy importante la predicación en las homilías «siempre respetuosa y amable» (*EG* 128), para presentar la Palabra de Dios, según los textos proclamados (cfr. *EG* 135-159) y su actualización histórica, dentro de la necesaria comunión magisterial.

**46.** En lo que se refiere a la educación de la fe, hay que abrirse a una catequesis más mistagógica (que evoque el misterio del Dios eterno) y más kerygmática (que anuncie a Jesucristo como Dios salvador), desde el primer anuncio (cfr. *EG* 164-166). Un anuncio del amor de Jesucristo como amor primero. También hay que abrir la catequesis al 'camino de la belleza' (cfr. *EG* 167). Se trata de mostrar que el seguimiento «no es sólo algo verdadero y justo, sino también bello y capaz de colmar la vida» y, «en lo que se refiere a la propuesta moral (…) conviene manifestar el bien deseable, la propuesta de vida, de madurez, de realización, de fecundidad» (*EG* 168).

Pero, para todo esto, es muy necesario, iniciar a los distintos agentes de pastoral en el «arte del acompañamiento» (*EG* 169), la proximidad y la escu-

ororen oinarrian Jainkoaren Hitza dago eta ezinbestekoa da «gero eta gehiago eliz egintzaren bihotza izatea» (*Verbum Domini*, 1).

**45.** Teologiarekin batera, gazteen Sinodoan (2018) azpimarratu den moduan, 'liturgiaren espiritua dastaraztea' da bereziki beharrezko; badirudi hau dela gaur egun Elizaren erronka nagusietakoa. Gauza bera esan da liturgiaheziketa egokia eskaintzeaz gure elizbarrutiko galdeketan ere; asko dira dagoeneko hizkera ulertzen ez dutenak; ezta sinbologia ere; asko elkarteko otoitz tradizioan parte hartzen ez dutenak. Ez dago zalantzarik: liturgiaren osagai aldagarriak egokitu egin behar dira ospatzen duen elkartearen egoerara, ulermenerako gaitasuna, arazo pertsonalak, kezkak eta Kristorekiko esperientzia pertsonala aintzakotzat hartuz.

Elizaren bizitza sakramental eta liturgikoaren ondoan, garrantzitsua da kultura eta toki jakin batean gauzatutako jaiera herrikoia ere; honek herriaren Jainko-egarria islatzen du, sinboloen bidetik gehiago, arrazoiaren bidetik baino (ik. *EG* 123). Garrantzitsua da apaizen predikua ere, «beti begirunezko eta adeitsua» izan behar duena (*EG* 128), hots egindako testuen arabera Jainkoaren Hitza (*EG* 135-159) eta beraren gaurkotzea agertzeko, eliz irakaspenarekin behar den komunioa izanik.

**46.** Fede heziketari dagokionez, toki egin behar zaio katekesi mistagogiko delakoari (betiereko Jainkoaren misterioa hausnartzera daramanari) eta kerygmatiko deritzanari (Jesu Kristo Jainko salbatzaile iragarriko duenari) lehenengo iragarpenetik hasita (ik. *EG* 164-166). Jesu Kristoren iragarpena, lehenmaitasun bezala. Toki egin behar zaio katekesian 'edertasun-bideari' (ik. *EG* 167). Kristori jarraitzea «egiazko eta zuzen izateaz gainera, ederra ere bada» (*EG* 167) eta «proposamen moralari dagokionean (…), nahi litzatekeen ona agertzea komeni da beti; biziera-, heldutasun-, betetze-, emankortasun-proposamena agertzea» (*EG* 168).

Baina, hau guztia lortu ahal izateko, beharrezko da pastoralgile ezberdinei «bidelaguntzaile izaten» irakastea (*EG* 169), hurbileko eta entzule on izateko prestakuntza eskaintzea. Zintzotasunez onartzea da kontua, sentitu eta erantzutea, gidatu eta laguntzea.

## 5. Eta hori guztia elkartasunezko era sinodalean egitea

**47.** Zabaldua dagoen iritzia da, lekuko Eliza bakoitzean sustatu, bizkortu eta aberastu egin behar direla elkarrizketa- eta partaidetza-egiturak; egitasmo

cha. Se trata de acoger con sinceridad, sentir y corresponder, orientar y apoyar.

## 5. Y que todo lo hagamos de modo más comunitario y sinodal

**47.** Es opinión extendida que se requiere activar, potenciar y enriquecer las estructuras de diálogo y participación de cada Iglesia particular y, que los planes pastorales se trabajen entre todos, de forma que todos nos sintamos incorporados sinodalmente a la Iglesia (cfr. *EG* 122-126).

Es necesario un espíritu de comunión y participación; una actitud de apertura, diálogo y disponibilidad para promover la corresponsabilidad efectiva y afectiva de todos los fieles en la vida de las comunidades cristianas. Un buen comienzo en esta dirección sería empezar por conocer mejor la naturaleza de la Diócesis, las parroquias, los Arciprestazgos y los diferentes Consejos; así como las tareas para las que les habilita el mismo Derecho Canónico, que son muchas.

Esto implica tomarse en serio y con todas sus consecuencias el ser Pueblo de Dios, un Pueblo de bautizados. Un Pueblo que es sujeto activo y corresponsable, en un espíritu de comunión y participación, del ser y el hacer de esa Iglesia. Es necesario crear cauces efectivos para que todos podamos participar en la toma de decisiones, marcando los objetivos estratégicos de los planes pastorales futuros; haciendo un diagnóstico por campos pastorales; determinando los criterios, las acciones, las etapas, los medios, los responsables y la evaluación consiguiente de todo ello.

**48.** Es evidente la necesidad que tenemos de caminar juntos, desde el respeto a las legítimas diferencias, en la dirección marcada por el Evangelio de Jesús.

Se trata de superar los bloqueos y los desánimos en la acción pastoral: cultivar las vocaciones de especial consagración; promover laicos y formarlos para ser animadores de la comunidad; desarrollar los diversos ministerios eclesiales; integrar mejor en la pastoral orgánica a los diferentes movimientos, carismas y grupos existentes en la Diócesis, etc…

pastoralak denen artean landu behar direla, Elizan denok era sinodalean partaide izan gaitezen (ik. *EG* 122-126).

Horretarako, elkartasun- eta partaidetza-espiritua izan behar da; irekiera- eta elkarrizketa-jarrera; prest egotea kristau-elkarteen bizieran fededun guztien ardurakidetza, modu eraginkor eta adiskidetsuan, piztu ahal izateko. Bide honi hasiera ona emateko modua, Elizbarrutia, parrokiak, Artziprestaldeak eta Kontseilu desberdinak ezagutzetik hastea da; eta batzuei eta besteei Zuzenbide Kanonikoak ematen dizkien eginkizunak jakitea, asko baitira.

Honek Jainkoaren Herria, bataiatuen Herria, izateak dituen ondorioak serioski aintzakotzat hartzea eskatzen du. Eragile eta ardurakide den Herria da, izan ere, elkartasun- eta partaidetza-espirituz Eliza honen izaeran eta eginkizunetan sartua dagoena. Egiazko bideak jarri behar dira, erabakiak hartzekoan denek parte hartzeko modua izan dezagun, etorkizuneko egitasmo pastoraletarako helburu estrategikoak markatzeko, alor pastoral desberdinetako diagnosia egiteko, eta aipatutako eginkizun gutien irizpide, ekintza, etapa, baliabide, arduradunak erabaki eta dagokien ebaluaketa egiteko.

**48.** Garbi dago, bide hau elkarrekin egin beharra dugula, Jesusek Ebanjelioan irakasten digun moduan bidezkoak diren desberdintasunak errespetatuz.

Pastoralgintzako korapiloak askatzea eta galdutako adorea berreskuratzea da kontua; sagarapen berezirako bokazioak lantzea, kristau-elkartearen animatzaile izango diren laikoak aurkitu eta heztea, eliz ministerio desberdinak garatzea, Elizbarrutian diren mugimendu, karisma eta talde desberdinak pastoralgintza organikoan hobeto eratzea, etab.

# EPÍLOGO

**49.** ¡Marana tha, ven Señor Jesús! Como mendigos del Espíritu Santo, imploramos sus dones para que también nuestra Diócesis de San Sebastián reciba la gracia de la renovación del celo apostólico. Solo así podremos ser testigos del Resucitado ante los hombres y mujeres de nuestro tiempo.

**50.** Pero para ello, necesitamos que Ella, la madre del Señor nos reúna en Cenáculo, acogiendo su llamada a perseverar unánimes en la oración: «Entonces se volvieron a Jerusalén, desde el monte que llaman de los Olivos, que dista de Jerusalén lo que se permite caminar en sábado. Cuando llegaron, subieron a la sala superior, donde se alojaban: Pedro y Juan y Santiago y Andrés, Felipe y Tomás, Bartolomé y Mateo, Santiago el de Alfeo y Simón el Zelotes y Judas el de Santiago. Todos ellos perseveraban unánimes en la oración, junto con algunas mujeres y María, la madre de Jesús, y con sus hermanos.» (*Hch* 1, 12-14).

## AMAIERA

**49.** *Marana tha*, zatoz Jesus Jauna! Espiritu Santuaren eskale garenez, beraren dohainak eskatzen dizkiogu, Donostiako gure Elizbarrutiak ere apostolutza-garraren berritasunaren grazia izan dezan. Era horretan bakarrik izan ahalko gara gure garaiko gizon-emakumeentzat Piztuaren testigu.

**50.** Jaunaren ama Mariak, apostoluak Afaltokian bezala, gu ere bil gaitzala, bihotz batez otoitzean irauteko deia geureganatuz: «Orduan, apostoluak Jerusalemera itzuli ziren Oliamenditik –mendi hau Jerusalemdik hurbil dago, kilometro batera eskas–. Etxeraturik, bizi zireneko goiko gelara igo ziren. Hona zein ziren: Pedro eta Joan, Santiago eta Andres, Felipe eta Tomas, Bartolome eta Mateo, Santiago Alfeorena, Simon Zelote eta Judas Santiagorena. Guztiok, emakume batzuekin eta Jesusen ama Maria eta anai-arrebekin, bihotz batez otoitzari emanak bizi ziren» (*Eg* 1, 12-14).

Gure apustua errukiaren Ebanjelioaren poza da! Gure herriaren zerbitzura gaur eta hemen Eliza bizitzeko modua da, Eliza izateko modua.

¡Apostamos por la alegría del Evangelio de la misericordia! Se trata de un modo de vivir la Iglesia, un modo de ser Iglesia, aquí y ahora, al servicio de nuestro pueblo.

© idatz

Elizbarrutiko Argitaldaria / Editorial diocesana

9 788496 903623